

13. ALDIZKARIA - 2016ko urtarrilaren 21a

22. ORDENANTZA, UDAL ELEMENTUAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA

OINARRIA

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza honetako prezio publikoa.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua.

1. Pertsona natural edo juridikoei Udalarenak diren elementuak lagatzea, horra zergapeko egintza.
2. Elementu horiek uzten ahalko dira Udaleko zerbitzuetarako behar ez direnean.

SUBJEKTU PASIBOA

3. artikulua. Ordenantza honetako prezio publikoa ordaintzera behartuta daude 2.1. artikuluan aipatutako tresna edo materialak erabiltzen dituzten pertsona edo entitateak.

KARGA-OINARRIA

4. artikulua. Lagatako elementuak zenbat denboran erabili diren, horren arabera izanen da.

5. artikulua. Erabilera denbora egunetan zenbatuko da, tarifetan zehazten denaren arabera, materiala udal biltegi edo parkeetatik ateratzen denetik hasi eta itzultzen den arte. Zatikia beti egun osotzat hartuko da.

TARIFAK ETA KUOTAK

6. artikulua.

1. Aplikatzeko tarifak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.
2. Lagatutako elementuak udal langileen bidez eta Udalaren bitartekoekin muntatu eta garraiatzen badira, kuota zehazterakoan elementu horiek erabiltzeko tarifari muntaiarengatik eta garraioarengatik dagokiona gehituko zaio, betiere kontuan harturik horretan aritzen diren langileak, kategoria, muntatu eta garraiatzeko erabili diren bitartekoak eta ordu kopurua.

TASAREN SORRARAZPENA

7. artikulua. Ordenantza honetan araututako prezio publikoak udal elementuak erabili aurretik ordaindu beharko dira, horien erabilerarako aurreikuspenaren arabera.

Ordainketa hamabost egun naturaleko epean egin beharko da, elementuak erabiltzen uzteko baimena jakinarazi eta biharamunetik hasita, dirua Barañaingo Udalak kasu bakoitzean ematen duen

13. ALDIZKARIA - 2016ko urtarrilaren 21a

kontu korrontean sartuz. Prezio publikoa ezarritako epean ordaintzen ez bada, baimena deuseztatu egingen da besterik gabe.

HOBARIAK ETA EZ ORDAINTZEKO KASUAK

8. artikulua. Halako ekintzetan Udala bera edo beste administrazio publiko bat entitate antolatzailea denean, elementu horiek erabiltzen uzteagatik ez da prezio publiko hau ezarriko. Halaber, prezioa ez ordaintzeko salbuespen hau aplikatuko da entitate antolatzailea Udalaren Musika Patronatua, Barañaingo Auditorioa edo Lagunak Udal Zerbitzua denean.

9. artikulua. Barañaingo Elkarteek Udala Erregistroan inskribatuta dauden irabazi asmorik gabeko auzo elkarteek udalaren materiala Udalak baimendutako jardueretarako erabiltzeagatik, oro har ezarritako prezio publikoari %50eko hobaria ezarriko zaio.

KUDEAKETA ARAUAK

10. artikulua. Udalaren elementuen lagapenerako interesa duten partikularrek idatziz egingen dute eskaera, 20 egun lehenago gutxienez, eskabide orria erabiliz, Herritarrarendako Harrera Bulegoan, argi zehaztuta zein elementu behar duten, noizko eta zenbat denborarako.

11. artikulua. Eskaeren zerrenda bat egingen da, sarrera erregistroko daten arabera antolatua. Erreserba zerrenda bat ere prestatuko da, eskaerak elementu erabilgarriak baino gehiago izanez gero.

12. artikulua. Elementuak erabiltzen hasteko, nahitaezkoa izanen da eskatzaileak tarifen eranskinean ezarritako prezio publikoak ordaintzea.

13. artikulua. Baimena duen eskatzailearen batek baimen horri uko egiten badio, erreserba zerrendako hurrengo eskatzaileak ordeztuko du. Eskaerari uko egiteko, eskabide orria aurkeztu beharko da Herritarrarendako Harrera Bulegoan. Eskatzaileari ordaindu duen tarifa itzuliko zaio, soilik, lagapenaren aurreko hamar eguneko epearen barnean, gehienez, aurkezten badu idatzizko ukoa.

14. artikulua. Udal zerbitzu teknikoei komenigarria iruditzen zaienean, fidantza bat eskatzen ahalko da lagatutako materialetan gerta daitezkeen haustura eta kalteei erantzuteko.

15. artikulua. Lagatutako elementuen erabilpen faseetan edozein motatako istripuak gertatuko balira, haien erantzukizuna ez legokioke inolaz ere Udalari.

16. artikulua. Lagatutako materialek izaten dituzten haustura eta kalteak erabiltzaileen gain egonen dira. Harreraren arduradunek kalteei buruzko oharra jasoko dituzte, kopia bat erabiltzaileei eman eta jatorrizkoa zerbitzu arduradunei igorriko diete. Haien eginen dute behar den tasazioa.

17. artikulua. Lagatutako materiala itzuli izanaren frogagiria eta, baldin badago, kalteen oharra, kasuan kasuko udal bulegoak jasotzen dituztenean, likidazio proposamena igorriko da, onetsi eta kobratzeko tramitazioa egin dadin.

18. artikulua. Materialak eta elementuak nahi erara emanen ditu Udalak, eta ukapenaren aurka ezin izanen da erreklamaziorik egin.

13. ALDIZKARIA - 2016ko urtarrilaren 21a

19. artikulua. Udal aldarnioak eskuratzeko alde zurretik fidantza bat jarri beharko da kalte eta hondaketei erantzuteko. Galdu eginen da, lagapen epea edo horren luzapenak gaintzen badira. Horren zenbatekoa lagapenari dagokion prezio publikoaren %10 izanen da.

2017KO TARIFEN ERANSKINA

	ERROLD.	ERROLD. GABEAK
I. epigrafea.–Langileak		
Kontzeptu honengatik aplikatu beharreko tarifak zerbitzua egiten den garaian indarra duten soldatei dagozkienak izanen dira, gehi % 35, osasun laguntzagarik, Montepioari Udalak egiten dion ekarpenagarik eta pentsioengatik.		
II. epigrafea.–Materialak		
II.1. Fokoak: oin eta egun bakoitzeko + hausturen ordainketa, halakorik bada	89,47	133,16
II.2. Zeramika labea		
–5 ordu baino guttiagoko labealdiak	17,68	27,04
–5etik 10 ordu bitarteko labealdiak	27,04	40,57
Zeramika labea Kultur Etxean egiten diren gauzak egosteko baizik ez da erabiltzen ahalko		
II.3. Beirarasak: zenbatekoa (1etik 30 egunera bitarte) + hausturen ordainketa, halakorik bada	440,00	659,61
II.4. Aulkiak: Aulki eta egun bakoitzeko zenbatekoa	0,43	0,65
II.5. Taulak, bakoitzeko egunean	0,13	0,20
II.6. Stand modularra (7,5 m ² / egunean)	33,59	50,90
II.7. Stand modularra, izkina (7,5 m ² / egunean)	36,64	55,99
III. epigrafea.–Oholtzak.		
III.1. Oholtza modulua (1x2 metro) zenbatekoa egunean	14,56	20,81
Aurreikusitako ez diren kasuak tarifako antzekoekin parekatuko dira, kontuan hartuz indarra duten kostu ofizialak edo merkatukoak.		
Tarifa guztiak denbora unitateei edo unitateen zatiei dagozkie.		